

IRAGARKIA, Lurreko Garraioak Antolatzeko uz-tailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa haus-teagatiko zehapen-espedienteen gainean Garraio eta Herri Lan sailburuordeak emandako ebazpenak jakinarazteko dena.

22187

EAKO UDALA

IRAGARKIA, Eako Udala jarduera ekonomikoe-tan aritzeko espedienteari hasierako onespina ema-teari buruzkoa, bai hirigintzako kudeaketa-alo-rrean, baita jarduera ekonomikoetarako (merkata-ritza eta industriarako) lurzoruaren sustapen-alo-rrean ere.

22189

Pribatuen Iragarkiak

BILBAO BIZKAIA KUTXA

IRAGARKIA, konpromisario titular eta ordezkioak hautatzeko zozketa publikoarena.

22189

Xedapen Orokorrak

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-6159

AGINDUA, 2003ko azaroaren 3koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkide-goko barruko uretan txitxardin-arrantza egiteko de-bekua kentzen duena.

2002ko azaroan izandako petroliontziaren istripuak eragindako hidrokarburoen kutsadura-egoeraren ondo-ren, azterlan zientifikoak eta teknikoak egin dira, ku-tsadura horrek barruko uretako arrantzarekin, itsaski-bilketarekin eta akuikulturarekin lotutako jarduereta-rako izan dituen ondorioen jarraipena egin ahal izate-ko.

Azterketa horiek aipatutako jardueretan kontuz ibil-tzea eta arreta ez galtzea gomendatzen zuten bereziki, eta horregatik eman zen, beste xedapen batzuekin ba-tera, 2003ko urriaren 3ko Agindua. Agindu horrek zu-hurtziaz Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txitxardina edo angula hartzea debekatu zuen, harik eta kontrakorik xedatu arte.

ANUNCIO por el que se notifican las Resolucio-nes del Viceconsejero de Transportes y Obras Pú-blicas, de los expedientes sancionadores abajo in-dicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres.

22187

AYUNTAMIENTO DE EA

ANUNCIO relativo a la aprobación del expedien-te de ejercicio de actividades económicas por el Ayuntamiento de Ea en el ámbito de la gestión ur-banística y de la promoción de suelo para activida-des económicas (comerciales e industriales).

22189

Anuncios Particulares

BILBAO BIZKAIA KUTXA

ANUNCIO del sorteo público para la elección de titulares y sus suplentes Compromisarios.

22189

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

Nº-6159

ORDEN de 3 de noviembre de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se levanta la prohibi-ción del ejercicio de la pesca de la angula en aguas in-teriores de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tras la situación de contaminación por hidrocarbu-ros generada por el buque petrolero siniestrado en no-viembre de 2002, se han sucedido los estudios cientí-ficos y técnicos llevados a cabo con el objetivo de rea-lizar un seguimiento de las consecuencias de esta con-taminación respecto del ejercicio de actividades relacio-nadas con la pesca en aguas interiores, el marisqueo y la acuicultura.

Estos estudios han recomendado, principalmente, el mantenimiento de un principio de cautela y precaución respecto de las actividades anteriormente relacionadas, razón por la cual se dictó, entre otras disposiciones, la Orden de 3 de octubre de 2003, por la que se prohíbe preventivamente el ejercicio de la pesca de la angula en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco, hasta que se dicte otra disposición en contrario.

Hala ere, kutsaduraren bilakaeraz eta eraginez ditugun datu berriak ikusita, kasu zehatz honetan, barruko uretan txitxardina harrapatzeaz dagokion kasuan alegia, aipatutako aginduak ezarri zuen debekua kentzea gomendagarritzat eta beharrezkotzat jotzen da.

Azaldutakoa kontuan izanik,

EBATZI DUT:

Lebenengoa.— 2003ko urriaren 3ko Agindu bidez zuhurtziaz Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txitxardin-arrantza egiteko ezarri zuen debekua kentzea.

Bigarrena.— Xedapen honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko azaroaren 3a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SAÉNZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

No obstante, a la vista de los nuevos datos con los que se dispone sobre la evolución de la contaminación y los efectos de la misma, en este caso concreto, sobre la pesca de angulas en aguas interiores, se hace aconsejable y necesario el levantamiento de la prohibición existente al respecto a través de la citada Orden.

En virtud de lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.— Levantar la prohibición establecida mediante Orden de 3 de octubre de 2003, por la que se prohíbe preventivamente el ejercicio de la pesca de la angula en aguas interiores de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Segundo.— Contra la presente disposición los interesados podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o bien recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de dicha publicación.

Tercero.— La presente Orden surtirá efectos el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de noviembre de 2003.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SAÉNZ DE SAMANIEGO BERGANZO.